



Gogoangarriak izan dira Santa Krutz jaiak

Dozenaka ekitaldi antolatu dira, festazale ugariaren parte-hartzearekin eta aparteko gorabeherarik gabe / 6-11

Zilegi Eskola

Aloña Braceras Izagirre AEK-ko irakasleari elkarrizketa / 16

Joxe Ramon Ansa gogoan izan zuten Santa Krutz jaietan eta haren aldeko oroitarran / 4

Txotx-garaia amaituta, Urnieako Altuna sagardotegiko nagusi Xabier Altunari elkarrizketa / 2-3

Zurrutz saski-taldearen igoera ikusgarria Allurralde kiroldogian, zaletu sutsuen aurrean / 13



MAIATZAK 9 OSTEGUNA 17:30EAN

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

SAGARDOAREN TXAPELKETA
2 0 2 4

01. partida (3 setera)
ARLUZIAGA · AIESTARAN VI vs SUSPERREGI · ESKUDERO

02. partida (3 setera)
BEREZIARTUA ANSA II · ZUBIRI vs *Pelritegi* SEGUROLA · LARRAÑAGA

03. partida (3 setera)
ABURUZA URRIZA · MARTIRENA vs *Alarrena* LOITEGI · BARRENETXEA IV

Alarrena zar



SARRERAK ENTRADAS



Andoni Urbistondo URNIETA

Xabierrek nekatuta bukatu du txotx denboraldia. Asteburuan jendetza hartu du sagardotegian, eta urtarrilaren 24an hasitako garaia bukaera eman, hiru hilabete luze egurrean aritu ondoren.

Balantzea, txotx denboraldia bukatu berritan.

Ona. Jende dezente izan dugu, gustura gaude. Asteburuetan oso ondo egin dugu lana, eta astean zehar hainbestean, baina joera hori ja agerikoa da urte batzuetatik hona. Jendea-ri kostatzen zaio astegunetan sagardotegira etortzea. Asteburuak indartu dira, astegunen kaltean, eta eguerdiak indartu dira, gauaren kaltean. Asteburuetan gauak ez dira erabat bete, eguerdiak den-denak. Aisialdi moldea aldatu dela esan genezake. Jendeak nahiago du parranda, edo irteera eguerditi- tik hasi, bapo bazkaldu, eta poteoa egin ondoren, iraun arte, gauean afaldu eta gaupasa egin baino. Egun guztia egin duzu festan, eta gauerdian edo, etxe aldera.

Ondo moldatu zarete joera horretara?

Bai, etorri bezala hartu dugu, eta ahalik eta ondoen zaindu bezeroa. Larunbat eguerdian jende gehiago sar genezakeen, izan dugu aukera, baina zerbitzua txartzearen truke, eta nahiago izan dut 100-110 lagunak mantendu, hortxe jarri muga, horiei ondo ematea, beste 30 lagun hartu eta zerbitzu txarra emateko arriskupean. Jendea edozein modura bazter batean jarri baino, nahiago izan dut daudenak ondo egotea. Galtzeko gehiago daukat, irabazteko baino, kabitzen dena baino jende gehiago onartzen badut. Daukadan bezero moldea ezagutzen dut, Urnietakoa, inguruko herrietakoa, zerbitzu ona emanez gero bueltatuko dena, eta horiei ezin zaie kale egin.

Lekurik ez duzuela esan izan behar diezu bezeroei larunbaten batean?

Bai, eguerdian bai. Ostiral eta igande eguerdiren batean ere bai. Ostiral gauren bat ere bai, oker ez banabil.

Bezera fidelari leial zarela esan duzu. Hori al da zuen marka, amua?

Baiezkoan. Kalitatea eta salneurriaren arteko oreka, eta zerbitzu txukuna. Bezera ondo zaintzen baduzu, bueltatu egingo da, hori da nire ustea.

“Txotx garaian ondo egin dugu lana, batez ere asteburuetan”

XABIER ALTUNA ALTUNA SAGARDOTEGIKO NAGUSIA

Txotx garaia bukatu zen apirilarekin batera, eta balantzea egin du Altunak; kontent, botila salmentan zentratzeko unea da, baita begi bat etorkizunari begira jarrita



Xabier Altuna, aurreko astean eginiko elkarrizketan. AIURRI

Zenbat jende etorri da Altuna sagardotegira txotx garaian? Zenbakiak egin al dituzu?

Ez, momentuz ez, baina sentsazioek asko esaten didate, eta esango nuke kopurua hazi egin dela. Bereziki asteburuetan, eta ostiral eguerdian, enpresa bazkariak-eta. Lanetik atera eta langileak zuzenean sagardotegira etortzen hasi dira. Ostiral askotan eman ditut bazkariak hiruretan, edo hiru terdian hasita, eta horiek langile bazkariak dira. Bazkaria eta festa ostiralean egiten du gero eta jende gehiagok, asteburuan lasai egoteko.

Iaztik aurtengo txotx garaia alderatuz, Setien-en itxiera izan dugu Urnietan. Nola eragin du itxiera horrek zuenean?

Setien-ek atek ixteak hango jendea hona etorri izana eragin du, dudarik gabe, baina nik nireari begiratzen diot, zer egin behar den hobetzeko. Badakidala uste dut, eta horretan ari naiz. Auzokoa zaindu behar da aurrena, herrikoa gero, eta ingurukoa ondoren. Hori da nire leloa. Eta lan hori ez da txotx garaira mugatzen.

"BEZEROA EZAGUTZEN DUT, HERRIKOA ETA INGURUKOA, ZERBITZU ONA EMANEZ GERO BUELTATUKO DENA"

Zer gehiago egiten duzu, bada, jendea erakarri asmoz?

Botilan hainbat bezero partikularrei saldu, herriko hainbat tabernekin berdin, jaiak dauden herrietako sagardo dastatzeak eta lehiaketak, txotx mugikorra...

Zer da txotx mugikorra?

Bezeroak bazkari, festaren bat badauka, kupel txiki batekin joaten gara esaten diguten tokira, atoiarekin, bere hotz eta presio sistemarekin, parte hartzaileek bertatik bertara sagardoa edan dezaten. Posta Zahar elkartaren herri bazkarian egon ginen, Xoxokako bertso afarian... Sagardotegiko sagardoa tokian tokira eramaten duzu. Ez da dirurik irabazten, parean geratu asko jota, baina jendea begira marketin ona da, haiek ondoren sagardotegira etor daitezten, bertako botila kontsumitu dezaten.

Ze proportziotan banatzen da bezeroaren jatorria? Zenbat dira herrikoak, zenbat kanpokoak?

Bertakoak asko dira, baina kopuru orokorra aintzat hartuz, kanpokoak askoz gehiago dira, noski. Esango nuke bezeroaren %25a edo izango dela Urnietakoa, eta %75 kanpokoak.

Tren geltokia gertu duzue, baina susmoa duzu ez duzuela behar adina probesten egoera hori.

Bai, bezeroari trenean lasai asko etor daitekeela jakinarazi behar ko genioke, jendeak ez dakiela uste baitut. Elkarrizketetan esaten dut, publikitatean, sagardo elkartaren web gunean, promozio bideo bat ere egin genuen... Askok kotxean etortzen dira, eta geltokia hiru minutura dagoela jakin ondoren harrিতa geratzen dira. Web gunea sortzen ari gara, eta hor trenari garrantzi handia emateko asmoa dut. Oso inportantea da, guretzat eta bezeroentzat. Trenean mugitu bazaitezke, ezin hobe. Lasai-lasai egingo duzu parranda, autoan ibili beharrik gabe. Gauetan akaso motz samar geratzen da zerbitzua, 11tan delako azken tren, bai Donostiarantz, baita Tolosarantz ere, baina garaiz etorrita, denbora duzu soberan. Eguerdian etorri gero, zer esanik ez.

Urteko negoziotan, zenbat da txotx garaia, eta zenbat botila salmenta?

Zifrak ez dira zehatz-zehatzak, baina botila salmenta askoz garrantzitsuagoa da, jendeak kontrakoa pentsatu arren. Txotx garaian jendea ikusten du beze-



Altuna sagardotegiko langileak. AIURRI

roak, sagardoa, jana barra-barra, baina hiru hilabete baino ez dira. Zenbat sagardo edaten du batez beste bezero bakoitzak? Litro bat? Litro eta erdi? Ba egin kontuak. Botila salmenta urte osokoa da, baita txotx garaikoa ere. **Zenbat sagardo litro ekoitzi dituzu aurten?**

60.000 litro edo.

Eta zenbat kontsumitzen dira txotx garaiak?

5.000 edo 6.000 litro. %10 inguru, %15, ez gehiago. Asteburu on bat, ostirala barne, zenbat lagun etor litezke? 300, 400 lagun? Ba 500-600 litro, asteburuko.

Jatetxe askotan banatzen duzu sagardotegiko botila?

Bai, Urnietan eta inguruko herrietan: Andoain, Lasarte-Oria, Hernani, Donostian... 20tik gora jatetxe, eta bezero partikularrekin ere nahiko saltzen dut, sagardo zale historiko petoak, sagardo kajak hamarnaka eramaten dituzten horietakoak. Beteritik kanpo Goierri aldean ere saltzen dut, Nafarroako iparraldean, eta Errioxa aldean ere bai.

Berrikuntza batzuk egin zenituen urte hasieran, eta nola hobetu pentsatzen jarraitzen duzu.

Kanpoko sarrera txukundu nuen txotx garaia hasi aurretik, eta argia eman sarrerari. Etxe aurreko aparkalekua ere atondu nuen, sarreratik lauzpabost metrora, denentzako moldatua, eskailerarik gabe. Barruan argi instalakuntza guztia aldatu dut, Udalak horrela eskatuta. Pintaketa lanak ere nahikotxo izan dira. Hobekuntzak egiten segi nahi nuke, baina baldintza batekin: esentziarik ez galtzea, tradizioari eustea, eta aspaldi datorren jendeak tradizioari eusten diogula ikus dezala garbi. Hobetu, bai, baina ez modernizatu. Betiko sagardotegia maite duen bezeroa daukat, ezin

"HOBEKUNTZAK EGITEN SEGI NAHI DUT, BALDINTZA BATEKIN: ESENTZIARIK EZ GALTZEA"

diet horiei bizkarra eman. Horrek ez du esan nahi berrikuntzarik egin behar ez dudunik, edo jendeak deseroso egon behar duenik gurean. Ez. Jendeak ezin du hotza pasatzen, egon, adibidez. Edo sagardoa epela egotea. Hotz sistema sartuko dut kupeletan hurrengo denboraldiari begira. **Zergatik?**

Eguraldia, edo klima gero eta epelagoa delako. Ez naiz meteorologoa, baina martxoan izan zen aste bat non gauean tenperatura ez zen 24 gradutik jaitsi. Horrek sagardoa kaltetu dezake, eta zehar kalte hori galarazi beharra daukat nola edo hala. Apirila fresko antzekoa izan da, baina ezin dugu arriskatu. Bezero batzuei esan diet, zein asmo dudan, eta azkar bota didate: 'hori zer da, urte osoan irekitzen hasteko?'. Eta nik ezetz, txotx garaiak freskoa bermatzeko dela. Hotz sistemari esker nik nahi dudan moduan eta unean egin dezaket botilaratzea. Hotz sistemak ez du mahaietako tenperatura aldatzen, kupeletakoa hozten du. Orain duela 40 urteko sistema daukagu, zaharkitu samarra, eta aldatu beharra dugu. **Hernanin eta Astigarragan eztabaida latza sortu da larunbatetako jende pilaketengatik. Urnietan, aldiz, lasai antzean gaude.**

Ikaragarria da, bai. Arratsalde batean pasa nintzen Hernani barrutik, eta ez sinestekoa da ze jendetza ibiltzen den. Sagardotegira etortzeko toki onetakoa bihurtzen ari da Urnieta, gero jende ia guztia Hernanira joaten delako parranda egitera. Gurera eta herriko beste sagardotegira etortzen direnek sosak uzten dituzte herrian, izan atariko poteoan, edo ondorengo kafe eta edariekin, eta horrek balioa ematen dio herriari.



Aiurrik eta Kantazaunek kantu-afaria antolatatu zuen Altunan, urtarrilean. AIURRI

Uda begiz jota

Xabierrek, berrikuntzei erne beti, txotx garaitik aparte uda garaiak sagardotegia irekitzeko asmoa dauka. Asmo hori, baina, ideien makinan dago oraindik, berde antzean. Honatx bere azalpena: "Ondo egin nahi nuke, egitekotan. Sagardotegi tradizionalaren sona gal dezakezu udan irekitzen hasten bazara, eta ez dut nahi hori gertatzerik". Duda asko ditu arrisku horrekin, baina Altunak garbi du sagardotegiaren etorkizuna, "zorionez edo zoritxarrez, ostalaritza aldera egitea dela. Txotx garai bat, eta udan bestea. Jendeak gero eta gehiago estimatzen du jana, sagardoa baino. Aspaldi hasi zen joera hori, eta sagardotegiak jatetxeen antza izango dute etorkizunean".

Xabierrek udan irekitzeak momentuz asmo soil dela azpimarratu nahi du behin eta berriro. "Ez da aurten izango, eta hurrengo urtean ere ez, gauzak normal. Jende askok esan dit udan irekitzeko, baina ondo pentsatu behar dut, egitea erabaki baino lehen". Aldeko eta kontrako faktoreak azaltzeko eskatu diogu sagardo egileari: "Oztopoa, nire buruarekin lasai geratzea, pausoa ematen badut. Ekimena arrakastatsua izan edo ez. Eta ez nago guztiz konbentzita". Puristek egurra ematen omen diote: "Esaten didate, 'besteak bezalakoa bihurtuko haiz, ikusiko duk'. Eta aldekoek, aldiz: 'egin behar duk, pagotxa izango duk, ikusiko dek'. Eta hortxe nabil, barne borrokan". Zalantza hori argitu ondoren etorriko dira besteak: "azpiegitura, terraza jarri atarian, non, langileak... Nik egon beharko nuke edo ez? Txotx garaiak ezinbestekoa da, ni egotea, baina udan agian ez". Hari mutur solte asko, beraz, eta ziurtasunik ez, momentuz.

A | ALTUNA
SAGARDOTEGIA - SIDRELLA

Eskariak: 943 554 917 - 650 266 925

Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia

Maiatzaren 6tik aurrera Egunean Behin-eko 15. denboraldia martxan jarriko da

egunean behin?

"Ez gaude ahaztuta"

1979ko Santa Krutz jaietan, talde parapolizialek hil zuten Joxe Ramon Ansa Etxeberria andoaindarra. 45 urte geroago, gogoan hartu zuten senideek eta adiskideek Espigoian antolatutako ekitaldian



Joxe Ramon Ansa gogoan hartu zuten, aurreko maiatzaren lehenean. AIURRI

Lore-eskaintza, hilaren 6an

Senideak eta lagunak, gertukoak zirenak, arratsaldeko seirak pasatxo zirenean elkartu ziren Azkonobieta baserriaren ondoan dagoen oroitarrian. Xoxokarako bidean da, eta hara hurbildu ziren lore-eskaintza egitera. Santa Krutz jaietan, haren gertuko eta lagunak omenaldi-ekitaldia egin zioten jaietan, eta maiatzaren 6an, 45. urteurrenean lore-eskaintza egin zuten.



Senideak eta lagunak hurbildu ziren Azkonobieta ondoko zelaian dagoen oroitarria, loreak uztera. AIURRI



Udaleko zenbait ordezkarri, Isidro eta Imanol Ansa anaiekin, lore-eskaintzan, astelehen arratsaldean. Eskuinean, Kontxi Arratibel eta Andoni Alvarez alkatea. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

"Ez gaude ahaztuta" lelopean, Espigoian egin zuten ekitaldia. Ansa gaztearen irudia Zehar eskulturaren zintzilikatu zuten, eta haren aurrean ohorezko agurra eskaini zion Ander Egaña dantzariak, Aran Mujika biolin-joleak musika-pieza eskaintzen zuen bitartean. Jarraian, lore-eskaintza egin zuten. Senideek eta lagunak lore bana utzi zuten Joxe Ramonen irudiaren aurrean. Iraganean, talde parapolizialek Beterrri-Buruntza eskualdean zabaldu zuten izu-kanpainaren barnean kokatu zuten andoaindarraren eraiketa. Joxe Ramon Ansaren adiskide batek gazetako lagun-giroko pasadizoa irakurri zuen, bertaratutakoen aurrean. Halaber, 2019ko maiatzean hilketaren 40. urteurrena gogoratu zenean, ekitaldi hartan abestutako bertsoak abestu zituzten. Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabal bertsoariak sortutakoak izan ziren.

Maiatzaren 1eko ekitaldia Santa Krutz jaietako egitarauan argitaratu zen. Eskuorri berean, hilaren 6an lore-eskaintzara joateko deialdia luzatu zieten herrikideei.

Lagunaren gutuna



Idatzia irakurri zuten. AIURRI

Adiskide batek Espigoian bertan honako adierazpen hau egin zuen: "Bi ibai hauen elkargunean, atzo izandako amets baten berri eman nahi nikek. Bertan, mutil kuadrilla bat azaltzen dek ikastolatik plazarantz. Poltsikotik pilota bat atera eta hasten dituk jolasean udaletxe azpiko frontisean, txokotan eta binaka.

Garaile suertatu direnak bentajarekin jokatu dutela ere esan dik norbaitek, tranpa zela alegia. Haietako batek, oso mutil sendo eta indartsuak, sekulako zartakoak ematen baitzizkiok pilotari eta aurkariak nekez bueltatzen ditek txapa gainera. Frontisera justu iristen diren erreto urriak, berriz, aurrelari plako eta zital samarrak txokotan edo bi pareta jota bukatzen dizkik.

Hala, pozik, Upategiko sagar banari hortzak sartuz agurtu ditek elkar bi pilotazaleek. Etxera bidean, Zubiaurrera iristerako sagar puskatxo bat baino ez zaidak geratzen. Eta ibai bidegurutze honetan ez dizkiat San Mameseko katedrala edo gabarra ikusten, baizik eta Kontsejupea eta Bentta Berriko astoa, karroarekin zubia zeharkatzen. Baina, ze ondo pasatzen genian? Sagarraren txustarra eskuan dudala esnatu eta Santa Kruzetan gaudela ohartu nauk. Zergatik ote? Agian, ahaztuta ez gaudelako?"



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Jose Luis Lopez de Lacalle gogoan hartu zuten

Maiatzaren 7an hogeitaz bete ziren ETak Jose Luis Lopez de la Calle erail zuela, bere etxearen atarian

Erredakzioa ANDOAIN

Maria Paz Artolazabal alargunak "alde bateko zein besteko hilketak guztien" aurka dagoela adierazi zuen, oroimen-ekitaldian. Bere asmoari eutsi zion, hogeitaz

urte igarota ere: "Gauza berdina esaten dut urtero, eta ez dakit zergatik, akaso ameslaria naizelako, baina gustatuko litzaidake entzutea hemen gertatu zena ez zela inoiz gertatu behar".

Jose Luis Lopez de la Calle biolentziaren guztien aurka zegoela eta frankismoan ahotsa altxatu izanagatik kartzelatu zutela gaineratu zuen: "Bost urte eta erdi penintsulako hainbat kartzelatan eduki zuten".

Maidar Lainez sozialisten bozeramaileak, aurretik, honako hau adierazi zuen: "Batzuk diote ETA banda armatua zela eta, mesedez, eskatuko genieke duintasuna eduki dezaten, gauzei bere izena jartzerakoan".



Lore-eskaintza izan ziren senideak eta lagunak, PSE-EEK antolatutako ekitaldian. AIURRI

Festa bikoitza, Azkorten

Anjel Larrañaga eta Aritz Igartzabal bertsolariak eta lehenbiziko eta Jon Ansorregi trikitilariak Santa Krutz eguna giroz aritu ziren. Ostirala izanik, ez zen jende asko hurbildu. Igandean, aldiz, Lasarte-Oriatik oinez eta busez dozenaka lagun igo ziren. Meza, abesbatza, trikitilariak eta herri kirol saioa antolatatu zituzten. Beñat Telleria, Julen Gabirondo eta Jokin Basozabal aritu ziren lanean.



Trikitixa, bertsolariak, meza eta hamaiketakoak dira jaiaren osagarriak. AIURRI



Dantzan aritzeko aukera izan zen, Santa Krutz egunean. AIURRI



Hamaiketakoak eskaini zieten bertaratutakoak. AIURRI



Igandean, Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak eta Udalak antolatuta, bigarren erromeria egin zuten. TXINTXARRI



Urki dantza taldeko kideak, Santa Krutz eguneko ezpata-dantzan. AIURRI

Jendetza bildu da jaietan

Kopuruari eta parte-hartzeari dagokionez, pozik egoteko motiboak baditu Jai Batzordeak. Izan ere, bertako eta hurbileko herrietako festazale ugari elkartu da Andoainen. Horrez gain, antolatu diren ekitaldi gehienetan parte-hartze handia izan da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Igandean, gaueko 22:00ak pasatxo zirenean, Jai Batzordeko kideek azken ekitaldiari ekin zioten. Xumea zen, eta ez zioten oihartzun berezirik eman. Zezen suzkoa Zubiaurre etxean amaituta, jaietako antolatzaileetako bi lehen solairura igo ziren mastatik Ikurriña kentzera. Inguruan zebiltzan haur eta familia asko, gertaerarekin jabetuta, etxerako bidea atzeratu zuten. Atera ziren balkoira Eneko eta Tolo, Ikurriña mastatik atera eta bandera jasotzen hasi zirela jendea txaloka hasi zen. "Gora Santakruzak!" oihukatu zuen norbaitek, jendartetik. "Gora!", erantzuna berehalakoa izan zen. Akabo festak! Zezen-suzkoa, suziri bikoitza eta Ikurriñaren jaitsiera izan ziren azken hitzorduak. Sei eguneko ospakizunen ostean, lanera eta eskolara joateko garaia zen.

Jaien balorazioa egiteko garaia da. Normaltasuna nagusitu da, aparteko gorabeherarik gabe.

Eta hori, bere horretan, pozgarria da. Kopuruari eta parte-hartzeari dagokionez, pozik egoteko motiboak badituzte antolatzaileek. Izan ere, bertako eta hurbileko herrietako festazale ugari elkartu da Andoainen. Horrez gain, antolatu diren ekitaldi gehienetan parte-hartze handia izan da. Kuadrillen bazkarian edo auzo bazkarian, esaterako, ehunka lagun elkartzea aintzat hartzekoa da. Jaiak sortzen duen atxikimenduaren seinale da hori.

Andoaingo Udalaren balorazioa

"Ehun ekimenetik gora burutu dira festetan, jendetsuak gehienak; herriko bizilagunez gain, inguruko herrietako bisitariak ere etorri dira jaietz gozatzen. Hori guztia ez litzateke posible izango Jai Batzordeak gauzatu duen lan eskergarrik gabe. Nekeaz aritu dira gainerako herritarrek jaietz goza zezaten. Udal gobernu gisa, eskerrak ematea dagokigu".

Bestalde, Udalak nabarmendu du Gune Morean ez dela aparteko intzidentziarik jaso. Zaurgarri diren kolektiboek begira, aurtengoan berrikuntza txertatu da Txistoki pasealekuko barraketan. Udala pozik agertu da saiakerarekin: "Gogoratzekoa da, jai hauetan lehenbizikoz zarata eta argirik gabeko ordu eta egunak izan direla barraketan; Udalak balantze positiboa egin du, eta hala jaso du horiekiko sentikor diren pertsona edo beren gertukoaren aldetik. Aurrerantzean ere, bide horretan lanean jarraituko duela adierazi nahi du Udalak". Jai Batzordeak, bere aldetik, datozen egunetan egingo du aurtengo Santakruzten balorazioa.



JAI
BATZORDEAREN
INKESTA:
Parte hartzeko,
QR-an sartu.



Sari-banaketa ekitaldia. AIURRI

Aburuza gailendu zen, Gaztañagarekin, final estuan

Hirugarren itzulian erabaki zen Zumeatarrak antolatutako txapelketa. Lehia estua izan zen

Erredakzioa ANDOAIN

Hamazortzi sagardogileen uzta dastatu zuen epaimahaiak, lehen itzulian. Hamar onenak sailkatu ziren bigarren errondara. Bien baturak egin ostean, berdinketa egon zen Aburuza eta Gaztañagaren artean. 125 puntu lortu zituzten biek ala biek, lehen bi txandak batuta. Gauzak horrela, bien artekoa argitzeko

hirugarren txanda egin zuten. Hirugarrenean, puntu bakarreko aldea atera zion Adunako sagardotegiak Andoaingoari.

Hirugarren Asteasuko Sarasola sailkatu zen.

Sailkapena:

- 1 Aburuza 194 puntu.
- 2 Gaztañaga 193 puntu.
- 3 Sarasola 121,5 puntu.



Gaztañagako sagardoa banatu zuten postua. AIURRI



Taloa, sagardoaren osagarri bikaina. AIURRI



Bakailao onena, Extremeñoa

Santa Krutz jaietako egitarauan ekitaldi klasikoa izan ohi da, bakailao txapelketa. Irunberri elkarteak antolatuta, giro polita sortu ohi da Kale Nagusian. Aurtengoan Hogar Extremeño gailendu da, Irunberri eta Batzokiari aurrea hartuz

Erredakzioa ANDOAIN

Giro polita sortu zen Kale Nagusian, Bakailao txapelketaren sari-banaketa ekitaldian. Elkar-teen artekoa bada ere, herritar ugari hurbiltzen da sukaldariak lanean ikustera eta, ondoren, prestaturikoa dastatzera. Irabazleak, nola ez, pozarren zeuden txapela lortu zutela jakin zutenean.

- Ontza: Jose Luis Makazaga, Ignacio Diez.
- Zumeatarra: Nakor Pozo. Joxe Mari Navaridas.
- Andoaindarra: Ivan Gonzalez, Martxel Prego.
- Batzokia: Iñaki Irulegi, Antonio Guedejo.
- Kotoi: Luisa Aguado, Nika Murillo.
- Karrika: Jesus Martin.
- Irunberri: Mirari Miner, Imanol Miner.
- Hogar Extremeño: Miguel Angel Martinez, Antonio Jiriol.
- Peña Santa Krutz: Iker Zabala, Jokin Alaña.
- Agustin Leitza elkarte: Alberto de la Flor, Esteban Lopez.



Martinezek eta Jirolek saridun izan zirela jakin zuten unea. AIURRI



Epaimahaikideak lanean, eta ikuslegoa eta partaideak adi-adi begira. AIURRI



1. Hogar Extremeño. AIURRI



2. Irunberri. AIURRI



3. Batzokia. AIURRI



Hiru tabernako lantaldea, saridun zirela jakin berritan. AIURRI

Hiru jatetxeak jaso du Txuri Beltz tabernaren lekukoa

Maiatzaren lehenean egin zen pintxo lehiaketa eta Juan Bautista Erro kaleko taberna-jatetxea izan zen irabazlea

Erredakzioa ANDOAIN

“Karibeko perla” izena du pintxoak eta honako osagai hauek ditu: Anana ar frijitua, haragia, guakamolea, piper saltsa eta bola kraskaria. Irabazleek pozarren hartu zuten saria, tabernan bertan. Antolatzaileek ohikoa dute-

nez, egun horretan bertan aurreko urteko irabazleari oroigarria oparitzen diote. Txuri Beltz izan zen iazko irabazlea.

Hona, lehiakideak: Txalaka, Txitibar, Muga, Txuri Beltz, Hiru, Tokitxo, Urkiola, Irunberri, Txindoki eta Gaztelutxo.





Eguzkipean ziren bazkalostean. DJ saio ibiltarian, ordea, denbora-tarte batean ederki busti ziren. AIURRI



Karparen bazter batean jarri zuten sagardo-kupela. AIURRI



Ehunka gazteren topagune bilakatu zen kuadrillen bazkaria. AIURRI

Kuadrilla eguneko bazkaria

Mukuru betea zen Zumea plazako karpa, Kuadrilla Eguneko bazkarian. Belaunaldi aldaketa gertatu da aurtengoan, bazkarira hurbildutakoen batez-besteko adina jaitsi zela somatzen baitzen. Eraldaketa logikoa, egunaren etorkizuna bermatzeko ezinbestekoa

Erredakzioa ANDOAIN

Asteartea jai egun bezpera izanik, gautxorientzat gau aproposa izan zen. Eta antzekoa izan zen ostiral eta larunbat gauean. Aurtengo jaietan, beraz, parranda egiteko hiru gau zeuden aukeran. Osteguna, lan eguna izanik ere, herriko gazteentzat ospakizunetan murgiltzeko lhirugarren eguna izan zen. Kuadrileen arteko jolasetan parte-hartze handia izan zen, eta bazkarian bostehun lagun inguru elkartu zen Zumea plazan. Sorpresa iragarritako zegoen, arratsaldeko hiruretarako eta ezustekoa handia izan zen. Mariatxi laukotea agertu zen, lehenik, mahaien artera. Lehen pieza eskaini ostean, taulagainera igo ziren Mexiko aldeko kantu ezagunenak eskaintzeko. Jendea kantuan eta dantzan jarri zuten, lehen doinuak eskaini eta berehala.



Triziberak Bekoplazatik Kale Nagusirantz egiten den jaitsiera ikusgarria da. AIURRI



Lagunartean egoteko egun aproposa da Kuadrilla Eguna. AIURRI



Mariatxiak, Kuadrilla Eguneko bazkalosteko sorpresa. AIURRI



Udal Korporazioa, txistulariak eta eskopetariak Goikoplazan, banderaren jaitsierari hasiera eman aurretik. AIURRI

Egun seinalatua maiatzaren 3a

Santa Krutz eguna handia da, andoindar askorentzat. Egun ofiziala San Juan eguna bada ere, antzeko izaera hartu du maiatzaren 3ak. Sinbolismo handiko ekitaldia da Banderaren jaitsiera eta Urki dantza taldeko kideen emanaldia



Urkiko dantzariak, Olagaingo Txistulari elkarteko kideak eta Iñaki Arregi Ikerfolk-eko kidea, Espigoian. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Bandera Jaitsiera egin zuen Udal korporazioak, Santa Krutz egunean. Goizean bildu ziren udaletxe parean, eta Zubiaurre-raino jaitsi ziren, Olagain Txistulari Bandako kideen laguntzaz. Andoni Alvarez Lete alkatearentzat lehen jaitsiera izan zen. aginte-makila eskuan duela. Bandera eraman zuen Idoia Mikelez zinegotziarentzat ere lehen aldia izan zen. Zubiaurre etxean Udal korporazioak zain zituen Urki Dantza Taldeko kideak.

Ezpata dantzari hasiera eman zioten, eta, ondoren, ikurrinaren jaitsiera, meza, eskopeteroen emanaldia eta brokel dantza eskaini zuten. Herritar askok interes handiz jarraitzen duten ekitaldia da. Ordu horretan zubia eta Espigoia jaiaren erdigune bilakatu ziren. Meza amaituta, txorixo egosia eta txakolia eskaintzen ditu Jai Batzordeak. Lanez lepo izaten dira gosea eta egarria berdintzeko gogoz diren guztien eskaerak bete arte. Eguraldi bikaina izan zen.



Eskopeteroen saioa, hilaren 3an. AIURRI



Bekoplazatik abiatu zen Herri Danborrada, hilaren lehenean. AIURRI

Irunberri eta Peña danborradak



Kaleberrian gora aritu ondoren, Kale Nagusian behera ibili ziren. AIURRI



Santa Krutz Peña elkarteko hainbat lagun, afaldu berritan. AIURRI



Elkartearen aurrealdean egin ohi du lehen saioa Santa Krutz Peña danborradak. AIURRI



Udal Musika Eskolako Bandak emanaldia egin zuen Kale Nagusian, ZASA parean. AIURRI



Xake jokalariek gazteak, Martiarenaren omenezko txapelketan. AIURRI



Udal musika eskolako musikariak, Zumea plazan. AIURRI

la aste osoko ospakizunak

Aiurrik jarraipen berezia egin die jaiei, webgunean sortutako kanal berezian ehunka argazki eta dozenaka bideo zabalduz. la aste osoko ospakizunak kateatu dira, apirilaren 30ean hasi eta maiatzaren 5a bitarte

Erredakzioa ANDOAIN

Santakrutzak jai herrikoiak dira eta herriko eragileen parte-hartzea garrantzi handikoa da. El-

karte gastronomikoak, kultur eta kirol mailako elkarrekin... Guztiak jaiaren egitarauan protagonista bilakatzen dira.

Aiurrik jarraipen berezia egin die jaiei, webgunean kanal berezia sortuz. Hauek eta askoz gehiago ikusgai daude.



Bertsolariak eta Kantujira taldeko kideak, elkarrekin. AIURRI



Maizorri Txalapartako kideak, jaietako emanaldian. Godoi eta Olló AIURRI



Urki dantza taldeak emanaldia eskaini zuen igande goizean. AIURRI

www.aiurri.eus



• Santakrutzak'24:
Argazkiak, bideoak...



Aitziber Ugartemendiaren alde topa egin zuten, igandean. Bermouth musikatuan izan zen, DJ Ezeikielen saioaren aurretik. AIURRI



Txalokin-dastaketa Santa Krutz egunean, elizatzxoaren kanpoaldean. AIURRI



Senideak, lagunak, Jai Batzordekideak eta, oro har, herrikideak hurbildu ziren Aitziber Ugartemendiaren aldeko ekitaldira. AIURRI



Andoaingo trikitilarien kalejira, jaietan. AIURRI



Pizzak eta kroketak aurtengo eskaintza berria txosnagunean. AIURRI



Zezen-suzkoa Zubiaurre etxearen parean. Jendetza elkartu zen astearte gauetz. Gutxixeago, igandean. AIURRI



Plaza-dantza saioa, aurten, Juanita Alkain plazatzxoan izan zen. AIURRI

Parte-hartze handia aurtengo edizioan

Iturzaeta memorialak Sorabillako pilotalekura gerturatuko ditu andoaindar ugari, datozen asteetan. Bikoteka jokatzeko da eta, aurtengo, partaide ugari izango dira. Nesken txanda iristear da, eta txapelketa horretan ere askotxok eman dute izena

Erredakzioa ANDOAIN

Izenekin edo abizenekin, andoaindar askorentzat ezagunak dira partaide gehienak:

1. Ponce-Alkorta.
2. Landa II-III.
3. Berrobi-Belauntza.
4. Txino777-jonpe.
5. Gonzalo-Iraola.
6. Gaztañaga-Ipintza.
7. Gurrutxer-Beroz.
8. Arberas-Iraza I.
9. Eskudero I-II.
10. Gazta-Ota II.
11. Loidi I-II.
12. Amets-Xanga.
13. Miera-Altzuguren.
14. Urko-Iñaki.
15. Agirre-Beloki.
16. Petrikorena-Olaza.
17. Canflanca-Ota I.
18. Javi-Sergio.
19. Chanca-Peñalvo.
20. Lopez de munain-Ibai.
21. Palas-Urreta.
22. Xabat-Balardi.
23. Setien-Urruzola.
24. Seko-Muji.
25. Ekain-Mateo.
26. Gonzaga-Txindo.
27. Lazkano-Yagoba.
28. Potti-Urko.
29. Salga-Miner.
30. Guti-Martxel.
31. Iraza-Santa Cruz.
32. Arruti-Amonda.
33. Andoni-Aranburu.
34. Arregi-Yeray.
35. Kiri-Xomo.
36. Markel-Euken.
37. Txuri-Jaure.
38. Arizaga-Arteaga.
39. Unai-Tronko.
40. Amas I-II.
41. Caballero-Olasagasti.
42. Aratz-Perez.
43. Matxete-Pakete.

Datorren asteburuan, emakumezkoak

Hamar bikote ariko dira nesken txapelketan, azken urteetako kopurua gaintuz. Oro har, zaletuen artean interesa pizten duen seinale.



Iraola-Gonzalo eta Markel-Euken. AIURRI



Joxe Mari Iturzaeta. AIURRI

Iturzaetaren bideo ikusgarria

Gazteleku Pelota Elkarteak Joxe Mari Iturzaeta zenaren aspaldiko bideo ikusgarria zabaldu zuen, maiatzaren lauan, honako mezuarekin: "Santa krutz jaiak direla eta zer opari hobeagorik Joxe Mari Iturzaeta zenaren bideoa baino. Hori da Palaz jokatzeko hori. Saiatuko gara bere bideo gehiago lortzen. Ia partiduren bat ere lortzen dugun. Gora Joxe Mari ta gora Santakruzak!". Bideoan pala motzarekin jokoan ageri da. Bere garaiko pala-jokalaririk handiena izan zen. Andoaindarra 1994an hil zen, 30 urte zituela.



Unai-Tronko eta Kiri-Xomo. AIURRI



Matxete-Pakete eta Jaure-Txuri. AIURRI



Ipintza-Gazta eta Potti-Urko. AIURRI



andoainDARRA
euskaraz



Zaletu ugari ditu Zurrut taldeak, Andoainen. Bereziki, gaztetxoan artean. AIURRI

Igoera historikoa

Zurrut Andoaingo senior mailako saskibaloia klubak bigarren mailara igotzea lortu zuen, herria Santa Krutz jaietan murgilduta zegoela. Bergararen aurka 60-58 nagusitu eta gero, hurrengo denboraldian Gipuzkoako bigarren mailan ariko da

Xabier Lasa ANDOAIN

Denboraldi bikaina egin ostean, premiazkoa zuen Bergararen aurka irabaztea Allurralden larunbatean, eta ederki sufritu eta gero lortu zuen helburua. Norgehiagoka ezin parekatsua goa izan zen, eta berdinduta amaitu eta gero, luzapenean lortu zuten Zurruteko jokalariek bi puntuko alde. Denboraldi osoan egundoko animazioa eraman du Allurraldeko Bandak harmailetara, eta jakina, ez zuen hutsik egin larunbatean, urteko hitzordurik garrantzitsuenean. Sekula ez bezala urratu zituzten eztarriak Bandako kide gazteek, "Baietz, igoko garela!" lelopean.

Gauzak horrela, festa galanta piztu zen Allurralden, 60-58ko azken emaitzaren ostean. Bandako kideek harmailetatik kanxara jauzi egin, eta jokalariekin bat egin zuten. Horra irudi politak, betirako geratuko direnak, kirolarien eta zaletuen artean sor daitekeen komplizitatea islatzen dutenak, eta hori, nahiz eta ez izan futbola, eta nahiz eta hirugarren mailako talde xume bat egon tarteko. Ospakizuna Aiurri.eus gunean ikus daiteke, bideoan.



Taldekieak, partida amaitu ostean. AIURRI




GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

Miren Goikoetxea, txapeldun

Miren Goikoetxea urnietarrak eta Amaia Irazustabarrena hernaniarrak, berriki, emakumeen paleta argentinarreko finala irabazi dute Trinketeko Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketan. Nagusien mailako emaitza:

- HERNANI 3 (Miren Goikoetxea-Amaia Irazustabarrena) 30
- HERNANI 2 (Izaskun Arrosagarai-Ane Kerejeta) 26.



BURUNTALDEA IKT

Izen-ematea, zabalik

Buruntzaldea IKT igeriketa taldea da, Lasarte-Orian eta Andoainen aritzen dena. Taldearen jarduerak igeriketa eskolarra, igeriketa federatua, igeriketa egokitua, master igeriketa, parte-hartze igeriketa eta triatlói entrenamendua dira. Izen-ematea zabalik dago, ikasturte berrirako, www.buruntzaldeaikt.eus webgunean.

Beroz, txapeldunorde

22 urtez azpiko G.R.A.B.N.I. binakako gomazko paleta txapelketako finala jokatu zen Gasteizko Mendizorrotza pilotalekuan. Nafarrek irabazi zuten finala, gipuzkoarren aurka (25-20). Partida ona jokatu zuten Joseba Beroz andoaindarrak eta Andoni Etxabek. Partida, oro har, atzealdean jokatu zen, nahiz eta Beroz saiatu zen partida hausten.



FEDERAZIOA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 9

ANDOAIN Ikus-entzunezkoak
Laburbira euskaraz sortu eta ekoiztako film laburren zirkuitua Andoainera iritsi da. Hainbat lan ikusteko aukera paregabea.
19:00, Bastero. Ekitaldi aretoa.

URNIETA Matrikulazioa

Musika Eskolako ikasleek egunotan dute aukera 2024-2025 ikasturterako matrikula berresteko edo baja emateko.
Azken eguna: maiatzak 20.

OSTIRALA 10

ANDOAIN Kontzertua

Idoia Asurmendik "De amar y desandar" diskoa aurkeztuko du.
20:00, Bastero.

URNIETA Lehiaketa

"Urnietako Gaztelekua" da agertu behar den esaldi bakarra eta logoa marrazkiak egin daitezke.
Lehenengo fasean, 11-17 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute.
Azken eguna: maiatzak 10.

ASTELEHENA 13

ANDOAIN Bilera

Sanjuanak antolatzeko bigarren bilera. Parte-hartzeko deia luzatu du Kultura sailak.
19:00, Bastero.

OSTEGUNA 16

URNIETA Emanaldia

Lourdes Iriondo Musika Eskolako teklatuko eta perkusioko ikasleen emanaldia.
18:30-19:30, Sarobe.

OSTIRALA 17

ANDOAIN Dantza

Oihana Varelaren eskutik: "Plañideras" ikuskizuna. Gizartean eta, ondorioz, sare sozialetan dagoen kexari eta gehiegizko kritikari buruzko hausnarketa.
20:00, Bastero.



Parketarrak, aurreko edizioan. AIURRI

ANDOAIN Parketarrak, haurren aisialdia euskaraz

Andoingo Udalak kalean eta parkeetan euskararen erabilera handitzea helburu duen egitasmoa jarriko du abian.
17:15, 3 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat.
18:15, 6 eta 9 urte bitarteko haurrentzat.
Maiatzak 14, 21 eta 28. Goikoplaza. Maiatzak 15, 22 eta 29. Zumea plaza.

IGANDEA 19

ANDOAIN Dantza

Udaberriko emanaldi berezia eskainiko du Urki dantza taldeak.
12:00, Bastero.

ANDOAIN Udako aisialdia

"Goazen jolastera", "Leitzaran Abentura" eta "Goizean Kirolean" aukeran izango dira haur eta gazteentzat, behin San Juan jaiak amaituta.
Informazioa:

Leitzaran Abentura, 943 304 221;
Goazen jolastera, 660 103 636;
Kirol eskaintza, 943 300 147.
Azken eguna: maiatzak 19.

ASTEARTEA 21

ANDOAIN Irakurketa kluba

2019 eta 2020an jaiotakoentzat.
17:00, Udal Liburutegia.

2016tik 2018ra jaiotakoentzat.

18:00, Udal Liburutegia.

OSTIRALA 24

ANDOAIN Ikuskizuna

"Sex sua" musika, Andoni Mutiloaren eskutik. Antzerkia, dantza eta musika uztartzen dira ikuskizun berean.
20:00, Bastero.



Urnietako
udala

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

El especialista

Lar, 11. 19:30.
Ig, 12. 19:30.
Asti, 13. 19:30,
22:00.

Deep Sea. Viaje a las profundidades

Lar, 11. 17:00.
Ig, 12. 17:00.
Nina
Lar, 18. 19:30,
22:00.
Ig, 19. 19:30.
Asti, 20. 19:30,
22:00.



SINOPSIS

El Especialista

Zuzendaria: David Leitch. **Aktoreak:** Ryan Gosling, Emily Blunt, Aaron Taylor-Johnson, Winston Duke.... **Herrialdea:** AEB (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Akzioa, komedia. **Iraupena:** 126 min.

Aktoreen B aldea

Protagonistak zineman lan egiten du aktore protagonisten arrisku-egoeretan ordezkapen lanak eginez. Jauzi egiten du, tiroak jasotzen ditu, leihoak zeharkatzen ditu eta altuera handienetatik erortzen da, guztia

ikuslegoaren entretenimendurako. Akzioa, umorea eta maitasuna uztartzen dira film honetan. Gosling eta Blunt aurkezpenik behar ez duen bikotea da nazioarteko zinemagintzan.

ETA ORAIN... 

POTX MAGOA

MAIATZAK 10 OSTIRALA

17:30 KOKORAKO ESKOLAN

4.0 



Abiatu da Egunean Behin lehiaketaren denboraldi berria

Aiurri taldeko partaideen artean Urnietako Altuna sagardotegiko botilak zozkatuko dira, astero-astero

Erredakzioa ANDOAIN

Egunean Behin berrirori ere mar txan da. Ohi bezala, 10 galdera azkar eta ondo erantzutea da xedea. Oraingoan, Aiurri taldeko kideek Altuna sagardotegiko uzta goxoaz gozatu ahal izango

dute. Aste osoko partidak jokatzen dituztenen artean sagardotegiko botilak zozkatuko dira, astero-astero dute. Adi, hortaz, eskualdeko parte-hartzaileak, beti bezala, sariak zozkatuko baitira "Aiurri" taldeko kide direnen artean.

Eneko Bidegain Airek irabazi du 2023ko 111 Akademiaren Saria

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatuta, ekainaren 6an emango diote saria lapurtarrari

Erredakzioa ANDOAIN

"Bichta éder" eleberria izan da akademiakideen gustukoena. Liburuaren muina honako hau da: "Gaur kazetan ari da Eñaut Oihenart, urtetan Euskal Herri-tik urrun ibili ondok, fisikoki

nahiz gogotik. Xalbat Barnetxe laborari eta militante zailduak ohartarazi du, isilpean, euskal kostako jauregi abandonatu batean badela asmo ezkuturen bat, eta Eñaut ikertzen hasiko da zer ote den negozio ilun hori".



EGAPE

Hernaniko Dantzari Egunean

Egape Dantza Taldeko kideek Hernaniko Dantzari Egunean parte hartu zuten, asteburuan, ehunka dantzari gehiagorekin batera. Talde txikitik herri osoa zeharkatu ondoren, Gudarien plazan egin zuten ekitaldi nagusia. Denek elkarrekin Agurra, Muxikoak, Mutildantzak, Fandangoa, Arin arina eta Larrain dantza dantzatu zituzten.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Natxo
Maiatzaren 10ean
6 urte zoragarri
beteko dituzu.
Ondo pasa! Muxu
potoloak! Etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak Jare
Jare Beraza
Alvarezek hiru urte
beteko ditu igandean.
Zorionak! Ondo pasa!
Etxekoak.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Maiatzak 13, astelehena.

ANDOAIN

Anbulatorioa:

16:30- 20:10.

Joan aurretik

deitu: 943 007

884.

Maiatzak 27, astelehena.

URNIETA

Gazteleku:

Joan aurretik deitu: 943 007 885.



Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

4 sarrera bikoitz zozkatuko ditugu Aiurriko Andoaingo eta Urnietako harpidedunen artean.

Parte hartzeko modua:

* Idatzi "Sua" mezua eta bidali whatsapp: 619 163 537.

* Irabazle bakoitzak bina sarrera irabaziko ditu.

* Saridunaren berri hurrengo astekarian emango dugu.

* Parte hartzeko azken eguna: Maiatzak 20, astelehena



Maiatzak 24, ostirala 20:00

Bastero Kulturgunea ANDOAIN

Hirukik ez du genero zehatzik.

Ez du horren beharrik.

Ligatzeko aplikazioen erabileraren ondorioz gure ohiturak nola aldatzen ari diren azalduko digu



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Urte osoan Zilegi Eskola martxan egon ondoren, hemen da Zilegi Astea.

Hernanirekin alderatuta, Urnietan, herri gisa, txikiagoa da, hortaz, eskaintza ere murriztagoia izan dugu gurean. Baina, lehen-go ikasturtean, parte-hartzeari begira gorakada nabarmena izan genuen, eta, aurten, kopurua mantentzea lortu dugu. Gai-emaileak urnietarrak izan daitezzen ahalegintzen gara. Batzuetan, zentzu horretan, hanka motz gelditu ohi gara, saretzea falta zaigu, elkarren berri izateko.

Zilegi Eskola, agian, Urnietan, ez, baina, eskualdean, ibilbide luzeko proiektua da. Laborategi txikia da euskaltegia, eta, Zilegi Eskolaren eta Astearen bitartez, kalera ateratzen ditugu ikasleak, herritarrekin elkartu daitezzen, eta ikus dezaten euskaraz makina bat gauza egin daitekeela. Horrela, gainera, hizkuntza-ohiturak aldatzeko aukera da batentzat baino gehiagorentzat. Euskaltegian irakasleak berak euskaraz jarduteko espazioak sortzen ditu. Zilegi batean, askoz naturagoa da dena. Hori horrela, ahalegintzen gara askotariko mailatara begirako tailerrak antolatzen, teorikoak zein praktikoak.

Oso balorazio positiboa egin zen joan den urteko Zilegi Astearen, bai parte-hartzaileen aldetik, bai gai-emaileen aldetik. Astebete hartzen du, baina, atzetik, lan mordoxka dauka. Bada, horri eustea da aurtengo asmoa. Egunerokoan zeharkatzen gaituzten gauzetan euskarak tokia duela erakusten du Zilegi Asteak. Izan ere, hizkuntza ez da gramatika, soilik, hizkuntza komunikaziorako tresna da. Horretara salto egin behar dute ikasleak.

Interesen araberako gaiak landu nahi dituzue Zilegi Astearen, euskaraz eta modu parte-hartzailean.

Zilegi Astea egun berberetan antolatzen dugu Astigarragan, Hernanin zein Urnietan. Berez, hiru eskaintzak daude irekita eskualdeko herritar guztientzat, izan ikasle ala ez. Euskaltegitik ateratzen eta Urnietako hainbat txokotara iristen ahalegintzen gara: Plazido Muxika plaza, kiroldegia, Sarobe. Goizari dago-kionez, sukaldaritza-tailerra izango dugu, lehenik, asteartean. Aldiz, ostegunean, artisau-kandelak egiteko tailerra antolatu dugu. Astelehen eguerdian euskal dantza-ikastaroa eskaini dugu

“Euskaraz, edozein gairen bueltan aritzeko plaza da Zilegi Astea”

ALOÑA BRACERAS IZAGIRRE AEK-KO IRAKASLEA

Zilegi Astea antolatu du herriko AEK-k, maiatzaren 13tik 16ra bitarte, urnietar guztiei begira. Doakoa da, baina beharrezkoa da alde zuretik izena ematea



Braceras, Elkartearen Etxean, AEK euskaltegian. AIURRI

eta, asteazkenean, 14:30-16:30 bitartean, toki bat egin diegu bidaiari euskaldunen esperientzien kronikei. Amaitzeko, arratsaldeko txandari erreparatuta, astelehenean astrologiari buruz jardungo gara; asteartean, pentsamendu bisualari eutsiko diegu; asteazkenean, Santa Barbara aldera joko dugu, eskaladan aritzeko, eta, azkenik, ostegunean, txalaparta-ikastaroa izango dugu gurean. Gai-emaileen artean, gehienak urnietarrak izatea ahalegindu gara, nahiz eta guztietan ez lortu.

Euskara-maila guztiei bideratutako saioak al dira?

Euskaraz izango dira tailer guztiak, goitik behera. Nire ikasleak,

esaterako, maila baxuena dutenak dira, eta praktikagoak diren ikastaroetara animatu ditut, nahiz eta guztia ez ulertu, euskarri bisuala izan dezaten, behintzat: sukaldaritza, kandelak, txalaparta, eskalada... Azken horretan, nor bere kaskoa eman beharko du eta, ahal duenak, oinetakoak. **Euskaltegiko ikasleak ere izan dira maiz gai-emaile Zilegi Eskola egitasmoaren bueltan.**

Lehenik eta behin, gure ikasleen motibazioa ezagutzen ahalegintzen gara. Ondoren, beraiek gai-emaile lanetan jartzea bultzatzen ditugu, beren interesa, euskaraz, gainerakoekin partekatu dezaten. Autoen mekanikaren oinarriko saioa, adibidez, ikasle batek eman zigun. Berarentzat erronka handia izan zen, euskalduntze-prozesuan dagoelako, baina oso ondo egin zuen. Motibagarria izan zen betidanik gaztelaniaz egin duen zerbaitetan euskaraz jardutea.

Herrian, zertan laguntzen du Zilegi Asteak euskal hiztunen komunitatea egonkortzen?

Euskaldunon artean elkar eza-gutzeko aukera ematen du Zilegi Asteak. Beharbada, euskalduntze-prozesuan dauden herritarrei euskaraz mintzatzeko espazioak irekitzen zaizkie horrela. Lehen esan bezala, herritarren arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko helburua ere badu Zilegi Asteak. Pentsatzen dena baino jende gehiagok daki euskaraz herri honetan.

"Hartu eta eman", dio lelo nagusiak. Zer ematen dio herritarrei zuen proposamenak? Eta, kontrara, zer jasotzen du AEK-k herritarrengandik?

Euskaraz, edozein gairen bueltan aritzeko plaza da Zilegi Astea. Euskaltegiarentzat oso motibagarria da ikustea ikasleak beste esparru batzuetan euskaraz aritzen. Oso interesgarria da guretzat. Bestalde, beste euskal hiztun batzuekin komunikatzeko edo egoteko aukera da. Batzuentzat euskaltegia da euskaraz jarduteko herrian duten espazio bakarra, eta irakaslea da beraien erreferentzia bakarra. Kaleko hizkuntza ezagutzeko parada da Zilegi Astea.

Zer egin behar du bertan parte hartu nahi duenak?

Doakoa da, baina, beharrezkoa aldez aurretik izena ematea. Hiru aukera daude. Euskaltegira bertaratzeko, telefonora (662 338 747) hots egitea edo helbide elektronikora (zilgieskola@aeq.eus) idaztea.

	Astelehena 13	Asteartea 14	Asteazkena 15	Osteguna 16
09:15-11:15		SUKALDARITZA Lekua: Elkartearen etxea, 3. solairua		ARTISAU-KANDELAK Gai-emailea: Amaia Jauregi Lekua: Elkartearen etxea
14:30-16:30	EUSKAL DANTZAK Gai-emailea: Izantzi Urtaran Lekua: Kiroldegia 5. Bax		BIDAIEN BILDUMA: Bidaiari euskaldunen esperientzien kronikak Gai-emailea: Alba Cabrera Jauregi Lekua: Sarobe	
18:00-20:00	ASTROLOGIA Gai-emailea: Izaro Sagarregi Lekua: Sarobe	PENTSAMENDU BISUALA Gai-emailea: Maitin Lekua: Sarobe	ESKALADA (hastapena) Lekua: Sta Barbara eskalada parera (leuria egingo baki, kiroldegia)	TXALAPARTA Gai-emailea: Tuktun taldea Lekua: Plazido Muxika plaza

Zilegi Eskolako egitaraua. AEK